

1. Lehiaketa “*Portmanteau*”

Europako Hizkuntzen Eguna ospatzeko, irailaren 26an, Iruñeko Hizkuntza Eskolak “*Portmanteau*” literatur lehiaketa antolatu du,

Baina, zer da portmanteau bat? Beste bi hitzen konbinaziotik sortutako hitza da, kontzeptu berri bat osatzeko, bere esanahiagatik, bere soinuagatik...

Baina kontuz! Portmanteau bat ez da hitz konposatu bat. Adibide batzuk:

- ✗ *Eskutitza*- ba, ez.
- ✗ *Eserlekua*- ezta ere.

Egia esan, agian jakin gabe, askotan erabiltzen dituzun hitz asko berez portmanteau-ak dira. Ez duzu inoiz *Brexit*-az hitz egin (Britain + exit)? Ez duzu inoiz ikusi izaki *bionikoa* (biologia + elektronikoa) edo kriminal *elektrokutatua* (elektrizitatea + gauzatua) duen film bat?

OINARRIAK

1. Parte-hartzaileak

Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialean 2021/22 ikasturtean hizkuntza ofizialetan matrikula duten ikasleak aurkeztu ahal izango dira lehiaketara.

2. Lanen betekizunak

1. Parte-hartzaile bakoitzak hiru lan aurkeztu ahal izango ditu gehienez.

2. Portmanteau bakoitza zehaztapen hauek bete beharko ditu:

-Portmanteau-a gehienez bi hitzen konbinazioa izango da.

-Portmanteau-aren jatorria azaldu eta erabili diren bi terminoak zehaztu beharko dira. Gainera, egileak eman nahi dion zentzua azaldu beharko da, eta erabil daitekeen testuingurua ematen duen esaldi bat, gutxienez.

Adibidea:

“*Edinformazioa*” (edan+ informazioa)

Esanahia: Norbaitek informazioa eman alkoholaren eraginpean dagoela aprobetxatuz.

Adibidea: “-Ezin dut sinetsi supermerkatuetan lapurtzen zuela aitortu izana!!

-Beno, nahiko mozkortua zegoen. Edinformazio asko eman zigun, kontatuko dizut..”

-Portmanteau-a osatzeko erabiltzen diren hitzak ezin dira asmatu, ez eta ulergaitza den lagunarteko erabilera mugatukoak ere. Baina marka komertzialak, programa-tituluak, hirien izenak eta abar erabili ahal izango dira.

Adibidea:

“*Netflipatua*” (Netflix + flipatu)

Definizioa: Plataformako serieekin obsesioa duen eta besterik ikusten ez duen pertsona.

Adibidea: -Asteburu honetan “The Walking Dead”-en 9. eta 10. denboraldiak ikusi ditugu.

-A, ze netflipatuak zareten!”

-Lanak IHEOeko edozein hizkuntza ofizialetan aurkeztu ahal izango dira.

-Lanak originalak eta argitaragabeak izango dira.

-Baldintza hauek betetzen ez dituzten lanak ez dira lehiaketarako onartuko.

3. Lanak aurkeztea eta identifikatzea

-Lanak posta elektronikoz aurkeztu beharko dira. Email: eoipiheoconcursos@gmail.com

-Mezu elektronikoak “*Portmanteau* lehiaketarako” izenburua izango du. Ez da haren egiletzari buruzko aipamenik egingo mezulariaren gorputzean,

-Emailari bi fitxategi erantsiko zaizkio:

- ✓ Lehena, portmanteau-arekin, definizioa eta adibidea(k).
- ✓ Bigarrena, egilearen datu pertsonalak adieraziko dira: izen-abizenak, telefono-zenbakia eta matrikulatuta dagoen hizkuntza eta maila.

4. Lanak bidaltzeko epea

Lanak hartzeko epea 2021eko irailaren 27an hasi eta urriaren 29ko 23:59an amaituko da. Epea ezingo da luzatu.

5. Irabazleak hautatzea

-Epaimahaia Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialeko departamentuetako irakasleek osatuko dute.

-Sariak eman gabe gera daitezke, behar besteko kalitaterik ez badute edo oinarrekin bat ez badatoz.

-Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

-Emaizta pertsonalki jakinaraziko zaie irabazleei, eta sare sozialetan adieraziko da ondoren.

6. Sariak

-Sari bat emango da Eskolako hizkuntza ofizial bakoitzeko. Dena den, sari hauek eman gabe gera daitezke behar besteko kalitaterik ez badute edo aurkeztutako obren kopurua kontuan hartuta.

-Irabazle bakoitzak 30 euroko txartela jasoko du, material didaktikoa erosteko.

7. Jabetza eta argitalpena

Aurkezkatutako lanaren jabetza egilearena izango da. Hala ere, IHEOk eskubidea du saritatuko obrak Vox Populi aldizkarian argitaratzeko eta beste sustapen-kanal batzuetan hedatzeko, hala nola prentsan eta sare sozialetan.

8. Oharrak

Lehiaketan parte hartzeak oinarriak onartzea dakar. Oinarri hauek betetzen ez dituen edozein lan kanporatu ahalko da.